



ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO
Tfona.: 943-313030 e-posta: infogeldo@euskalerria.org

Martxoaren 8a emakumeen eguna!

KONTU KONTARI:

- Gizon-proba
- Informatika ikastaroa

SENDABELARREN IKASTAROA

NON: Igeldoko Kultur Etxean.

NORK ANTOLATUA: Musik@rte-Gunea Kultur Elkarteak.

NOIZ: Martxoak 6, 13; apirilak 3, 10, 17, 24; maiatzak 8, 15, 22, 29; ekainak 5, 12.
(Ostegunak).

ORDUTEGIA: 16:00etatik 19:30etara.

NORI ZUZENDUA: Gazte zein helduei.

IRAKASLEA: Laura Gurbindo.

IZEN EMATEKO EPEA: Otsailak 29. (Gehienez 20 pertsona).

KONTAKTUA: 943-313030.

PREZIOA: 150 euro pertsonako.

Izena: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

OHARRA: Interesa duenak orri honetan eskatutako datuak bete eta Kultur Etxeko buzoian utzi. Bestela, goian aipatutako telefonora deitu.

KAIKO HERRIKIDE!!!

Eta urte berri on ere esan behar-ko! Izan ere, azkenekoz, iaz sartu ginen zuen etxeetara. Dagoeneko 2008ari bi hilabete kendu dizkio- gu eta bitarte horretan ze ospatu ugari izan dugu. Gabonak bukatu bezain laster Inauteriak gainean izan ditugu. Inauteriak hain goiz tokatu izanak agian eguraldian ere izan du eraginik. Izan ere, Nafarroako zenbait herritan inauterietako ospakizunek udaberriari dei egiten diete lurra esnaraziz. Hala nola, Iturengo eta Zubietako zantzarrek. Baina tira, gure teoriei ere kasu handirik ez egin! Igeldora itzuliz, hemen ere izan zen ospakizunik inauteri asteburu- ruan. Herriko hainbat gaztek giro- tu zituzten baztarrak. Eguerdian



ikusgarri eta originalagoekin. Bertan ziren Kontxako hondar- tzan bainua hartu eta iritsi berri ziren garai bateko emakumeak,

Maurizia eta Margari herriko bi atso salerosak. Poteoaren ostean, Nicolas jatetxe- an bazkaldu zuten trikiti eta ber-



plazan elkartu eta poteoa egin zuten zein baino zein mozorro

birziklapenaren garrantzia gogoraraziz bi hankako kontainerrak, herriko baratzeetatik alde egindako txoromaloak, harri eta guzti emakume probarako prest azaldu zirenak, giro eroari orden pixkat jartzeko señorita Rotenmeier eta teniente Colombo, oesteko hautsak harrotuz iri-

tsitako bakeroa eta, nola ez, saltsa guztietako perrexila diren



tsolarien konpainian. Tartean ere izan zen barra ondotik inprobisazi- oira animatu zenik ere, askotan bertsolariei hitza kenduz.

Egia esan, bixitasun pixkat eman zion horrek bertso saioari gonbi- datuak euren hamaika bertuteak ezin erakutsiz ibili baitziren.

Mahaira ateratako guztia jan eta edan ostean, herriko tabernetan jarraitu zuen jai giroak. Tartean, Igeldoko tribialean jolasteko aukera izan zen. Galderak ongi erantzun eta probak gairiditu zituztenak etxera opari eta guzti heldu ziren. Orain, hori ze ordu- tan izan zen norberak jakingo du. Guri behintzat ez zaigu informazio hori heldu.



Zein baino zein astoago

Heldua zen egun handia. Hitzordua 11:00etan, Antiguako Istingorra kalean. Eta 11:00etarako plaza jendez beteta. Asko eta asko kamerak eskuan, zela argazkiak ateratzeko zela grabatzeko. Ikusmina izugarrikoa zen. Eta guztien begiradapean, 7 gizonen osatutako bi talde, entrenatzaile bana eta asto bat. Tarteko, berriz, hilabete eskasean prestatutako desafioa; 500 kiloko harriarekin hogeitun minututan plaza gehiago nork egin erabakitzea. Apustutarako giro bikaina. Eguraldia ere ederra. Guztia prest, beraz, goizaz gozatzeko.



Zoriak hala erabakita, Patxi izan zen lehenengoa plazan sartzen. Astoa baino gehiago zaldia zirudien, ordea, Euskal Herriko txapeldunak. "Bai asto elegantea!" entzuten zen ikusleen artean. Egia esan, edonor izutzeko planta zuen. Ordura arte irabaztea zail ikusten bazen, hori ikusita, ze esanik ez! Antiguatarren taldea osatzen zuten zazpi mutilak eta herriko taldeko beste zazpiak beroketa lanetan zebiltzan bitartean, Gatikako asto puskak, Jon eta Unai *itzaien* laguntzarekin, 66 plaza bi zinta eta bi metro eta erdi egin zituen hogeitun minututan. Ez zen marka kaskarra, ez horixe!

Antiguatarren (tartean bi igeldoar) txanda heldu zen. Igeldoko plazan hilabetean zehar egindako entrenamenduetan 45 plaza egitea lortu ez, eta urruti gertatzen ziren Patxiren 66ak. Hala ere, beroketa lanetan konturatu ziren harria Igeldon baino errazago mugitzen zela eta ez ziren, ez, atzera bota zazpi gazteak. Anderrek (igeldoarra), Haritzek eta Kepak aurreko aldean tira zuten. Atzean, berriz, Egoitz (igeldoarra),

Aitzol, Igor eta Rober aritu ziren. Guztiak Lizarren agindupean. Lasaiantxa hasi ziren. 15 minutu emateko zirenean, 40 plaza zituzten eginak. Astoak, berriz, 52. Izugarriko aldearekin geratuko zirela zirudien, baina azken hamar minutuetan hartutako martxarekin jarraituz, aldea zortzi plazakoa besterik ez zen izan azkenean. Antiguatarrek 58 plaza, ia 59 egin zituzten!

Azkarregi ez itotzeko estrategia ondo pentsatua zegoen, baina ez zuten behar bezala kalkulatu jakin. Batzuk gehiago emateko gogoz geratu ziren arren, ezin esan fresko amaitu zutenik. Txahala bota zuenik ere izan zen tartean, baina hori gehiago aurreko gaueko parrandaren ondorioa izan zen. Antiguako festak izanik, bertako gazteak desabantailan egon zirela esan beharko! Nolanahi ere, ezin uka saio bikaina egin zutela. Tartean bi igeldoar izateak zerikusia izango zuen ziurrenik...



Hamabiak inguru zirenean sartu ziren gure gizonak plazan. Ordurako giroa ederki berotua zegoen, garaile nor izango zen erabakitzeko azken saioa besterik ez baitzen geratzen. Aurrean, 500 kiloko harriari tiraka, Mikel eta Anjel Gorostikoak eta Joxe Mari Amezti Goikoakoa aritu ziren. Atzean, berriz, Iñaki Txoxakoa, Karlos Etumekoa, Aitor Egioletakoa eta Jon Habanakoa. Amezti Goikoako Mikel izan zuten entrenatzaile. Igeldoko zazpi astokiloak prest ziren ahal zuten guztia emateko. Hasi aurreko komentarioen artean, Igeldokoek astoaren marka hauts zezaketela entzuten zen.

Gogorregi eta azkarregi hasi ziren gure mutiak. Bost minututan 18 plaza egin zituzten. Erritmoa, baina, moteltzen joan zen pixkanaka. Hamar minututan 33 plaza zeuzkaten eginak eta 18 minututan 60. Lehertuta ikusten ziren ordurako. Bi minutu besterik ez amaitzeko eta oraindik 7 plaza egin behar astoari irabazteko. Gertu ibiliko zirela



bai, baina...

Baina inor ez zegoen etsitzeko prest eta jendea gero eta indartsuago txalotzen eta animatzen hastarekin batera, azken bi minutu horiek ikaragarriak izan ziren. Gelditu ere egin gabe, plazak bata bestearen atzetik heldu ziren. Minutuak luzatu ere egin zirela iruditu zitzaion bati baino gehiagori. 19 minutu eta 63 plazatar iritsiak ziren. Larri ziren kontuak... azkeneko minutua heldu zen... eta azken minutuarekin, hainbeste kostatako garaipena! 67 plaza nahiko ziren astoari irabazteko, baina azken segundoak ere aprobetxatu nahi izan zituzten. Astoak baino bi plaza gehiago egin zituzten. 68 plaza, alajaina! Segituan etorri ziren, ordea, kexak eta zalantzak. Azkenak atera zirela eta bentaja izan zutela eta... Itzulia egin beharko da, beraz. Datorrena Igeldoko festetan izango ote den zurrumurrua zabaldu da... Zerbaiten berri jakin bezain pronto zabalduko dugu Orri Informatiboan. Ez hutsik egin gero!



Igeldoko astonautak sarean harrapatuta

Martxan da jada Musik@rte guneak antolaturiko informatika ikastaroa. Ikastaro hau Behemendi Elkartearen bidez lotu da, baina Itsamendikoi Elkartea da klaseak aurrera eramateaz arduatzen dena. Behemendi Elkartek nekazalguneetako herri txikien garapenean laguntzen du. Aipaturiko ikastaroan interneta eta Word programa nola erabili irakasten ari dira. Horretarako bi irakasle ezberdinekin ari dira lanean. Guztira 13 pertsona apuntatu dira bi talde osatuz. Batzuk arratsalde, 16:30etatik 18:30etara, eta besteak iluntzean, 19:00etatik 21:00etara. Ikastaroaren nondik norakoa jakiteko asmoz Kultur Etxeko KZgunera hurbildu ginen eta ikasleekin zein irakaslearekin hitz egiteko

aukera izan genuen. Irakasleak azaldu zigunez, Igeldoko ikasleak benetan ikasle finak omen dira eta oso gustora aritzen da saioak ematen. Lehendabizi arratsaldeko taldekoekin elkartu ginen eta orain artean ordenagailuekin harreman handirik ez eta pixka bat "al dia" jartzeko apuntatu zirela esan ziguten Kontxi Larraia, Garbiñe Urruzmendi eta Laura Izagirrek. Horrez gain, Kontxik aitortu zigun beldur pixkat ematen ziotela teknologi berri hauek, baina ikastaroari esker konfiantza hartzen ari dela eta beldur horeik uxatu dituela. Jose Inazio Yurrebasok, berriz, etxean egoteaz aspertuta zegoela eta, baratzean zein beste gauzetan erabiltzeko teknika berriak ikastera etorri zela azaldu zigun.

Aldiz, Jabier Sorondok interneta nahikotxo ezagutzen du eta bere asmoa Word menperatzea da. *“Dokumentuak txukun egiten ikasi nahi dut edozein lekutan aurkezteko beharrezkoa baita”*.



Arratsaldeko taldearekin egon ostean, iluntzekoak elkarrizketatzera hurbildu ginen. Egia esan, ederki kosta zitzaigun hitz batzuk lortzea. Joseba Arrilagak, Egoitz Etxebestek eta Joxe Mari Urangak ere, aurreko taldekoen antzera, gaur egunean ordenagailuak zein internet erabiltzen jakiteak duen garrantzia azpimarratu ziguten. Hala nabarmendu zigun Egoitzek: *“Gaur egun, ordenadoreak ibiltzen ez badakizu tontoa zarela ematen du. Lehendik ere, eskola garaian erabili izan dut, baina interneta ez nuen ezagutzen. Orain, e-posta, Google... kontrolatzen hasi naiz”*. Josebak, berriz, orain artean ordenagailuarekin tratu handiegirik izan ez arren, pixkanaka moldatzen ari dela aipatu zigun. Hala ere, oraindik askorik ez dutela ikasi aitortu zuen. *“Ikasi, ikasi*

baino saltzan gabiltza gahiago”. Joxe Marik ere ez du atzera geratzeko asmorik eta argi du ikastaroan izen emanaren zergatia. *“Ladriluak etxetik jartzeko asmoz etorri naiz. Jada masa jartzen ikasi dut, orain, internetez ladriluak jartzea falta zait”*. Ikusten dugunez, ikastaro honetan guztiak buru belarri ari dira lanean. Daramaten martxarako ordenagailu kaxkarrak dituztela ere entzun genion bati baino gehiagori. Kixkali beharrean omen daude! Ikastaroan ikasitakoarekin gustura daude oro har, baina amaitzerakoan non eta nola praktikan jarriko duten zalantzak dituzte etxean ordenagailurik ez dutenek. Kultur Etxeko KZgunean aukera badutela aipatu zuten, baina askok ordutegiarekin konpontzeko arazoak izan ditzakete. Izan ere, ez dago ordu oro zabalik. Bestalde, KZguneko ordenagailuak internetera konektatzeko aukera besterik ez dutela ematen kexatu ziren. Eta arrazoiz kexatu ere. Hainbeste ordenagailu herrian eta ezin Word edo beste edozein programa erabili!



Bota puntua

KUKUAREN KANTA

Zelaian eserita nago, kukuaren kanta noiz entzungo zain. Poltsikoan txanpon batzuk (bileteak edukitze hobe den edo ez, ez dut sekulan jakin). Baina ez dut entzuten. Kamioien zaratak bai, entzuten ditut. Hauek ez dute balioko urte oparoa izateko, noski. Ondo pentsatuta kamioien hotsak diruaren seinale dira, zalantzarik gabe. Kamioiak botere gehiago dauka kuku txikiak baino. Fuera, fuera,... nahasten hasia nago. Hala ere, zer sartu diezaieket patriketan aberats suntzitzaile hauei kukuaren kantua entzutean,

behingoz geldirik egon daitezen? Honi bueltak emanez zera dator kit burura. Kukurik geldituko ote da Igeldon? Azkeneko urte hauetan gure fauna murrizten ari da. Erbiak, azeriak, hontzak, arroketako arrain txikiak, lanpernak,... Ei, eta trikuak! Bakar batzuk ikusten ditut oraingoz, baina gutxi, bidean kotxeek harrapatuta normalean. Joder, hain animalia ederra izanda. Beste hegazti eta arbolekin ez naiz sartuko, depresioak jota ez dut bukatu nahi eta. Kartoizko behiaren bat ere ikusi dut Igeldon. Agian hauxe izan daiteke nere nostalgia puntua

gainditzeko formula: kartoizko trikuak, kukuak eta gainontzekoak. Modernitatearen ondorioak diote. Ez dakit. Nik modernitatearen abantailak gustoko ditut, baina hainbeste natura puskatzea, hainbat saiheits-bide, autobide, bidebide, hainbeste super- eta megaez dakit zer, porlana eta porlana. Eta gizakiok zer? Bakoitzak berea, gero eta gehiago nahi, haundikeria,...

Ku-ku! Ostia! kukua al zen? Ea nire desioak betetzen diren... ku-ku.

Kukuaren maitalea

Herrian ze berri?

Borda bidean Diputazioak ireki nahi duen zentroa

Aurreko alean, Batzar Berezia egin eta Diputaziokoekin biltzeko asmoa zegoela jakinarazi genuen. Bilera abenduan izan zen eta aipatutako puntuak hauexek izan ziren: zentroa egonaldi permanentera pasatzeko aukerak daude, haurren artean konfliktiboagoak izan daitezkeenak ez dituzte Igeldora ekarriko (horretarako beste zentroak daude), gutxienez bi hilabete pasako dira haurrak ekarri arte (abendua abiapuntu), Herri Batzar batera etortzeko borondatea azaldu dute eta autobus propio bat erabiltzeko aukerak badaude. Bilera horren ostean, batzordea Diputazioko teknikoarekin, Urnietako zentroko koordinadorearekin eta Udaletxeko ongizateko tekniko batekin bildu zen. Egindako hainbat galderak idatziz erantzuteko konpromisoa azaldu zuten. Erantzunak jaso eta gero, berriro biltzekotan geratu zen batzordea eta baita Herri Batzarra konbokatzekotan ere. Oraindik Diputazioko erantzunaren zain daude.

Itsas Aurre beheko solairua

Proiektu batzuk egin dira eta bilera batean hauek aztertu ziren. Garbi ikusi zen beharrezkoa dela

gaia Herri Batzar batean azaltzea eta herriaren borondatea aztertzea. Batzar horretan IHKK egindako zirriborroa (zer asmo dauden, zer baldintzak jartzen diren,...) eta proiektua eztabaidatzea aurreikusten ziren. Herri Batzarra urtarrilaren 17an egin zen. Bertan, gaia lantzen joateko Batzorde bat osatu zen eta sukaldean egin beharreko obrak bideratzeko beste talde bat ere. Obrak jada martxan daude.

Kanposantua

Egun hauetan herrian gertatutako kasu bat aipatzen da. Bertan enpardonatutako pertsona hil da, baina ez dute bertan lurperatzen utzi, aurretik eginga dagoen hilobien banaketan ez delako agertzen. Arazo hau lehendik ere aurreikusten zen, jende asko etorri baita Igeldora bizitzera azkeneko urteetan, eta hilobien banaketa 1950. urte aldean egin zen. Lehen ere onartu zen hilobi guztien azterketa sakona egin behar zela: zeintzuk dauden erabili gabe, zer behar sortuko diren, kanposantua handitzea onartuta dagoen edo ez zehaztea,... Gainera Polloeko arduradunak 5 urteko epea eman zuten honi buruzko akordio batera iristeko eta dagoeneko bi pasa dira. Lehen osatu zen batzordea erre-

kuperatu behar dela esaten da.

Musik@rte

Musikarteren egoerari buruz aurreko bileretan esandakoa azaltzen da berriro ere: berriro indartu beharra, errelebo falta, presupuesto eza, jendearen nekea,... Gainera, Musikartek Kultur Etxearen kudeaketa bere osotasunean egin behar dela ikusten du eta honen alde presioa egin beharra.

Bestalde, Udaletxearekin egiteko dagoen bileraz hitz egin da. Bilera horretan eskola zaharraren erabilpenerako zesioa, eta berau eta Itsas Aurre Kultur Etxearen kudeaketarako presupuesto baten beharraz hitz egingo da. Bilera hau aspalditik eskatua egon arren, ez dute oraingoz egunik zehaztu. Berriro eskatuko zaie, eta erantzuten ez badute, presioa egiteko beste aukerak aztertuko dira. Horrez gain, presupuesto bat prestatzea (gastuen kalkulua, garbiketa, langilea, mantenimendua,...) ondo ikusten da. Musikarte presupuesto hau lantzeko prest azaldu da. Azken finean, hemen aipaturiko hau Ente Local Menor (ELM)-en proiektuan aurreikusten dena da. Izan ere, bertan, ondare guztiaren zesioa eta hauen mantenurako presupuestoa izatea azaltzen da.

Irakurleen txokoa

Aurreko aletan esan bezala, atal honetan zure ekarpenak bildu nahi ditugu. Berdin du zer idazten duzun, kexak, ipuinak, poesiak, errezetak, txisteak... Helburua herritarren parte hartzea bultzatzea da. Anonimoa izan daiteke, goitizena jartzea besterik ez duzu. Animatu eta idatzi!!!

Herri Kontseiluak proposatu du interesgarria litzatekeela herriko berri zein deialdiak ahalik eta azkarren zabaltzeko, posta elektronikoa erabiltzea. Horretarako, interesa duten herritarren zerrenda bat osatu beharko litzateke. Beraz, hala nahi izanez gero, bidali zure izen-abizenak eta e-posta gure helbide elektronikora.

infogeldo@euskalerrria.org



Martxoak 8

Emakume Langileen Nazioarteko Eguna

Azken urteetan bezala, aurten ere **herriko emakume baserritarrek** antolatuta martxoaren 8an Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ospatuko dugu Igeldon.

20:00etan, Itsas Aurren elkartu eta bideo emanaldia ikusi ahal izango da.

Ondorenean, **Olasagasti sagardotegian** afaria egingo da. lazko ohiturari jarraituz, afalostean, kantu eta dantza giroa ez dira faltako. Tartean zozketa berezia ere egingo da.



ANIMATU ETA GERTURATU!!!

Afarirako izena emateko otsailaren 29a baino lehen deitu 646 60 10 17 zenbakira.



**Igeldoko
Herri
Kontseilua**

Laguntzailea:

